

Etzi taldea - Ingumarket proiektua

Irabazi Iturriak

Proiektuarekin hasteko, diru kantitate bat beharko dugu. Hori lortzeko, Eusko Jaurlaritzari laguntza ekonomikoak eskatuko dizkiogu, izan ere, Lanbidek hainbat laguntza eskaini ohi ditu. Horretaz gain, Herriko Udalari ere dirulaguntzak jaso ahal izatea eskatuko diegu; kontuan izanik, 2019an 5000€-ko dirulaguntzak eskaini zituztela. Ez hori bakarrik, kide bakoitzak 1000€ jarriko ditu hasiera batean proiektua sortu ahal izateko. Beranduago, hala ere, irabaziak handitzen diren heinean, bakoitzak inbertitutako dirua berreskuratuko da.

Behin *Ingumarket* guztiz sortuta eta martxan jarrita, hileroko jasoko den diruaren zati bat parte hartzen duten enpresengandik etorriko dira. Hots, enpresa bakoitzak hileroko diru kopuru jakin bat ordainduko du app-ean egon ahal izateko. Gainera, nahiz eta app-a deskargatzea doainekoa den, geroz eta gehiago erabili, gure diru sarrerak handituko dira.